JUNTAS GENERALES DE ALAVA

ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**SUPLEMENTO**
al Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava

**GEHIGARRIA**
Araba Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala

**2010eko apirilaren 30a, ostirala** ZENBAKIA **46** NÚMERO **Viernes, 30 de abril de 2010**

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**2877**

**Foru Arau batzuk aldatzea batasuneko arautegira egokitzeko Zerga Premiazko Araugintza 2/2010 Dekretua Berresteko Erabakia.**

Arabako Biltzar Nagusiek, 2010ko apirilaren 19an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuten Foru arau batzuk aldatzea Batasuneko arautegira egokitzeko Zerga Premiazko Araugintzako 2/2010 Dekretua berrestea.

Dekretua Diputatu Kontseiluak 2010ko martxoaren 23an onartu zuen eta ALHAOren 37. zenbakian argitaratu zen 2010ko apirilaren 7an.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko apirilaren 19a.– Presidentea, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**2878**

**6/2010 mozioa, apirilaren 19koa, Red Eléctrica Españolak, Vitoria/Castejón-Muruarte 400kVko linearen Arabako tartea dela-eta, proposatu duen trazadurari buruzkoa.**

Arabako Biltzar Nagusiek, 2010ko apirilaren 19an egin duten Osoko Bilkuran, ondorengo mozio hau onetsi dute:

6/2010 mozioa, apirilaren 19koa, Red Eléctrica Españolak, Vitoria/Castejón-Muruarte 400kVko linearen Arabako tartea dela-eta, proposatu duen trazadurari buruzkoa.

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

**2877**

**Acuerdo de convalidación del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 2/2010, que modifica diversas Normas Forales para su adaptación a la normativa comunitaria.**

Las Juntas Generales de Álava, en su Sesión Plenaria celebrada el día 19 de abril de 2010, acordaron convalidar el Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 2/2010, que modifica diversas Normas Forales para su adaptación a la normativa comunitaria.

El Decreto fue aprobado por el Consejo de Diputados el día 23 de marzo de 2010 y publicado en el BOTHA nº 37, de fecha de 7 de abril de 2010.

Vitoria-Gasteiz, 19 de abril de 2010.– El Presidente, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

**2878**

**Moción 6/2010, de 19 de abril, en relación con el trazado propuesto por Red Eléctrica Española para la línea de 400kV Vitoria/Castejón-Muruarte a su paso por Álava.**

Las Juntas Generales de Álava en su sesión plenaria celebrada el día 19 de abril de 2010, aprobaron la siguiente Moción:

Moción 6/2010, de 19 de abril, en relación con el trazado propuesto por Red Eléctrica Española para la línea de 400kV Vitoria/Castejón-Muruarte a su paso por Álava.

1.- Arabako Biltzar Nagusiek maiatzaren 12ko 12/2008 eta urriaren 26ko 23/2009 mozioetan adierazitakoa berretsi dute. Mozio bi horiek, Red Eléctrica Españolak Vitoria L/Castejón-Muruarte 400 kVko linea berriaren Arabako Lurralde Historikoko tarterako proposatu duen trazadurari buruzkoak dira.

2.- Arabako Biltzar Nagusiek, 400 kV-ko zirkuitu bikoitzeko linea elektrikoen Ingurumenaren gaineko Eraginaren Adierazpenarekiko Administrazio Baimena dela-eta ireki berri den jendaurreko tramitean alegazioak aurkeztea erabaki dute; aipatutako linea horiek “Sarrera eta Irteera Castejón-Muruarte lineako Gasteizko Azpi-estazioan eta “Sarrera eta Irteera Muruarte-Gasteiz lineako Dicastillo Azpi-estazioan” dute izena. Horretarako, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko eta Ingurumen Saileko Zerbitzu Teknikoei Arabako Foru Aldundiaren alegazioak egiteko burutu dituzten txosten teknikoak eskatuko dizkiete. Txosten tekniko horiek Arabako Biltzar Nagusien alegazioen oinarri izan beharko dute.

3.- Arabako Biltzar Nagusiek, Red Eléctrica Españolak Gasteiz/Castejón-Muruarte 400 kVko goi-tentsioko linearako proposatu duen trazadurarekin eragindako lurraldeko entitate guztiei dei orokorra egin nahi diete (Eusko Jaurlaritzari, Udalei, Koadrilei, Administrazio Batzarrei) alegazioak aurkez ditzaten lehen aipatutako jendaurreko tramiteak finkatzen duen epe eta eran; horretarako, beharrezkoa balitz, Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen Sailaren laguntza izango lukete.

4. Arabako Biltzar Nagusiek berriz adierazi nahi dute Bernedo, Lagran, Arana, Arraia-Maeztu, Urizaharra, Kanpezu eta Alegria-Dulantziko Udaletako Osoko Bilkurek hartutako erabakien alde daudela, Udal horiek REE enpresak goi-tentsioko linea dela-eta aurkeztu duen proiektuaren aurka agertu ziren; proiektu horren arabera, Arzubiagako azpi-estazioa Castejón-Muruarte (Nafarroa) linearekin lotuko dute.

5.- Arabako Biltzar Nagusiak bat daude eta elkartasuna adierazi dute Arabako Mendialdeko Koadrilak REE-k proposatu duen Goi-Tentsiko proiektuaren aurka antolatu dituen ekitaldiekin. Proiektu horrek Gasteizko azpi-estazioa Castejón-Muruarte linearekin lotuko du.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko apirilaren 19a.– Presidentea, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

1.- Las Juntas Generales de Álava se reafirman en lo manifestado en las mociones 12/2008 de 12 de mayo y en la 23/2009 de 26 de octubre relativas al trazado propuesto por Red Eléctrica Española para la nueva línea de 400kV Vitoria L/Castejón-Muruarte a su paso por el Territorio Histórico de Álava.

2.- Las Juntas Generales de Álava acuerdan formular alegaciones en el trámite de información pública que se ha abierto en relación a la solicitud de Autorización Administrativa con Declaración de Impacto Ambiental de las líneas eléctricas a 400kV, doble circuito, denominadas “ Entrada y Salida en la S.E. de Vitoria de la línea Castejón-Muruarte” y “Entrada y Salida en la S.E. de Dicastillo de la línea Muruarte-Vitoria”. Para ello recabaran de los Servicios Técnicos del Departamento de Medio Ambiente y del Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Álava los informes técnicos que hayan elaborado para formular las alegaciones de la Diputación Foral de Álava, informes que habrán de ser el fundamento de las alegaciones de las Juntas Generales de Álava.

3.- Las Juntas Generales de Álava hacen un llamamiento general para que todas las entidades del Territorio (Gobierno Vasco, Ayuntamientos, Cuadrillas, Juntas Administrativas) que se vean afectadas por el trazado propuesto por Red Eléctrica Española para la línea de alta tensión de 400 kV Vitoria/Castejón-Muruarte presenten alegaciones en tiempo y forma en el trámite de información pública citado, para lo cual recabarán, si fuese menester, el apoyo técnico del Departamento de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Álava.

4. Las Juntas Generales de Álava reafirman su apoyo a los acuerdos plenarios de los Ayuntamientos de Bernedo, Lagrán, Arana, Arraia-Maeztu, Peñacerrada, Kanpezu y Alegría-Dulantzi que expresaron su rechazo al proyecto de línea de alta tensión propuesto por REE para enlazar la subestación de Arzubiaga con la línea de Castejón-Muruarte en Navarra.

5.- Las Juntas Generales de Álava muestran su apoyo y solidaridad con los actos organizados por la Cuadrilla de la Montaña Alavesa contra el proyecto de Alta Tensión propuesto por REE que uniría la Subestación de Vitoria y la línea de Castejón-Muruarte.

Vitoria-Gasteiz, 19 de abril de 2010.– El Presidente, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**2880**

**7/2010 Mozioa, apirilaren 19koa, zeinaren bidez Arabako Biltzar Nagusiek adierazi dute Arabako Txakolina, Bizkaiko Txakolina eta Getariako Txakolina jatorri deiturak arautzen dituzten hiru Kontseiluek txakoli-chacoli hitzak bakar-bakarrik erabiltzeko egin duten aldarrikapenen alde daudela.**

Arabako Biltzar Nagusiek, 2010ko apirilaren 19an egin duten Osoko Bilkuran, ondorengo mozio hau onetsi dute:

7/2010 Mozioa, apirilaren 19koa, zeinaren bidez Arabako Biltzar Nagusiek adierazi dute Arabako Txakolina, Bizkaiko Txakolina eta Getariako Txakolina jatorri deiturak arautzen dituzten hiru Kontseiluek txakoli-chacoli hitzak bakar-bakarrik erabiltzeko egin duten aldarrikapenen alde daudela.

Arabako Biltzar Nagusiak jatorri-deiturak arautzen dituzten hiru Kontseiluekin (Arabako Txakolina, Bizkaiko Txakolina eta Getariako Txakolina) ados daude TXAKOLI eta CHACOLÍ hitzak lurralde-eremu horretan bakar-bakarrik erabiltzeko eskatzen dutenean. Horrela bada, Eusko Jaurlaritzari eskatu diote Espainiako Gobernuarekin batera lan egin dezala Europako erakundeen aurrean aipatutako hitzak defendatzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko apirilaren 19a.– Presidentea, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

**2880**

**Moción 7/2010, de 19 de abril, por la que las Juntas Generales de Álava apoyan a los tres Consejos Reguladores de las denominaciones de origen, Arabako Txakolina, Bizkaiko Txakolina y Getariako Txakolina en la reivindicación del uso exclusivo de los términos txakoli y chacolí.**

Las Juntas Generales de Álava en su sesión plenaria celebrada el día 19 de abril de 2010, aprobaron la siguiente Moción:

Moción 7/2010, de 19 de abril, por la que las Juntas Generales de Álava apoyan a los tres Consejos Reguladores de las denominaciones de origen, Arabako Txakolina, Bizkaiko Txakolina y Getariako Txakolina en la reivindicación del uso exclusivo de los términos txakoli y chacolí.

Las Juntas Generales de Álava apoyan a los tres Consejos Reguladores de las denominaciones de origen; Arabako Txakolina, Bizkaiko Txakolina y Getariako Txakolina, en la reivindicación del uso exclusivo de los términos TXAKOLI y CHACOLÍ en su ámbito territorial. Así mismo instan al Gobierno Vasco a que trabaje junto al Gobierno de España en la defensa ante las instituciones europeas de los citados términos.

Vitoria-Gasteiz, 19 de abril de 2010.– El Presidente, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**2881**

**8/2010 Mozioa, 2010eko apirilaren 19koa, Errioxako Ardoaren Profesionalen arteko Erakundeak eta Errioxa Jatorri Deitura Arautzen duen Kontseiluak 2010eko martxoaren 8an hartu zuten erabakia errefusatzeko dena. Erabaki hori Errioxako 32 milioi litro kentzeari eta mahaiko ardoko 15 milioi litroko burtsa sartzeari buruzkoa da.**

Arabako Biltzar Nagusiek, 2010ko apirilaren 19an egin duten Osoko Bilkuran, ondorengo mozio hau onetsi dute:

8/2010 Mozioa, 2010eko apirilaren 19koa, Errioxako Ardoaren Profesionalen arteko Erakundeak eta Errioxa Jatorri Deitura Arautzen duen Kontseiluak 2010eko martxoaren 8an hartu zuten erabakia errefusatzeko dena. Erabaki hori Errioxako 32 milioi litro kentzeari eta mahaiko ardoko 15 milioi litroko burtsa sartzeari buruzkoa da.

1.- Arabako Biltzar Nagusiek Errioxako Ardoaren Profesionalen arteko Erakundeak eta Errioxa Jatorri Deitura Arautzen duen Kontseiluak 2010eko martxoaren 8an hartu zuten erabakia errefusatzen dutela jakinarazi dute. Erabaki hori Errioxako 32 milioi litro kentzeari eta mahaiko ardoko 15 milioi litroko burtsa sartzeari buruzkoa da.

2.- Arabako Biltzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzari eta Arabako Foru Aldundiari eskatu diote Errioxa Jatorri Deitura Arautzen duen Kontseiluan Arabako Errioxako mahastizainen mahats-ekoizpenaren kostuak bermatzeko moduko jarreren alde egin dezaten eta ardoaren merkatu-zirkuituetan diren soberakinekin amaitzeko ekintzak sustatu ditzaten.

3.- Arabako Biltzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatu diote Euskadiko Ardoaren Mahaian lehentasun-irizpideak finkatzearen alde egin dezala Arabako Errioxako ardoak promozionatzeko neurriei dagokienez eta mahastizaintzako sektorean kontratu tipoak eta merkataritza-praktikak burutzen dituzten enpresak ekonomikoki laguntzeari dagokionez.

4.- Arabako Biltzar Nagusiak Eusko Jaurlaritzaren erabakiarekin ados daude; erabaki horren arabera, Observatorio de precios del sector primario Vasco-NEKAZAL BEHATOKIAn 2010eko mahastizaintzaren kanpainako Arabako Errioxako mahastien eta ardoaren prezioak sartuko dira.

5.- Arabako Biltzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzari eskatu diote 2015erako Ardoaren Merkatuaren Antolamendu Arruntean laborantzak ez liberalizatzearen alde egiteko.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko apirilaren 19a.– Presidentea, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

**2881**

**Moción 8/2010, de 19 de abril de 2010, por la que se muestra el rechazo al acuerdo alcanzado por la Organización Interprofesional del Vino de Rioja y el Consejo Regulador de Denominación de Origen Calificada Rioja, de 8 de marzo de 2010, sobre la eliminación de 32 millones de litros de vino de Rioja e inclusión de una bolsa de 15 millones de litros de vino de mesa.**

Las Juntas Generales de Álava en su sesión plenaria celebrada el día 19 de abril de 2010, aprobaron la siguiente Moción:

Moción 8/2010, de 19 de abril de 2010, por la que se muestra el rechazo al acuerdo alcanzado por la Organización Interprofesional del Vino de Rioja y el Consejo Regulador de Denominación de Origen Calificada Rioja, de 8 de marzo de 2010, sobre la eliminación de 32 millones de litros de vino de Rioja e inclusión de una bolsa de 15 millones de litros de vino de mesa.

1- Las Juntas Generales de Álava manifiestan el rechazo de esta Cámara al acuerdo adoptado por la Organización Interprofesional del Vino de Rioja y el Consejo Regulador de Denominación de Origen Calificada Rioja de 8 de marzo de 2010, sobre la eliminación de 32 millones de litros de vino de Rioja e inclusión de una bolsa de 15 millones de litros de vino de mesa.

2- Las Juntas Generales de Álava, instan al Gobierno Vasco y a la Diputación Foral de Álava, a que en el Consejo Regulador de Denominación de Origen Calificada Rioja defienda posicionamientos que garanticen los costes de producción de la uva a los viticultores de Rioja Alavesa, e impulse acciones orientadas a eliminar los excedentes del circuito de la comercialización de vino.

3- Las Juntas Generales de Álava, instan a la Diputación Foral de Álava a que en el seno de la Mesa del Vino de Euskadi defienda el establecimiento de criterios de prioridad en las medidas de apoyo a la promoción de vinos de Rioja Alavesa y el apoyo económico a las empresas que realicen contratos tipo y prácticas comerciales para el sector vitícola.

4- Las Juntas Generales de Álava apoyan la decisión del Gobierno Vasco de incluir en el Observatorio de precios del sector primario Vasco-NEKAZAL BEHATOKIA para la campaña vitícola 2010 los precios de la uva y el vino de Rioja alavesa.

5- Las Juntas Generales de Álava instan al Gobierno Vasco a que en la revisión de la OCM del vino prevista para el año 2015 defienda la no liberalización de las plantaciones.

Vitoria-Gasteiz, 19 de abril de 2010.– El Presidente, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**3015**

**Biltzar Nagusien Aretoan, Foru Aldundiaren Etxe Jauregian, 2010eko maiatzaren 3an, astelehena, goizeko 9:30etan, egingo den 83. Osoko Bilkuraren gai zerrenda:**

1.) Juan Carlos Prieto San Vicente jaunak, Euskal Sozialista Biltzarkide Taldeko prokuradoreak, Arabako Diputatu Nagusiari Hitzarmen Soziosanitarioari buruz egindako interpelazioa (Espedientea: 8 /C/02/0002771)

2.) Nerea Gálvez Lavín andreak, Ezker Batua-Berdeak/Aralar Biltzarkide Taldeko Prokuradoreak, aurkeztutako galdera, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari zuzendua, 2013ra arte transferentzia arrunten bilakaerari dagokionez dituzten aurreikuspenei buruzkoa (Espedientea 8 /C/03/0002683)

3.) Aitor Bezares Vargas jaunak, Misto Biltzarkide Taldeko Prokuradoreak, aurkeztutako galdera, Nekazaritza Saileko foru diputatuari zuzendua, Arabako Foru Aldundiak Red Eléctrica Española

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

**3015**

**Orden del día de la Sesión Plenaria nº 83 que se celebrará el lunes día 3 de mayo de 2010, a las 9:30, en el Salón de Juntas Generales de la Casa Palacio de la Diputación Foral:**

1º) Interpelación, formulada por D. Juan Carlos Prieto San Vicente, Procurador del Grupo Juntero Socialistas Vascos, al Diputado General de Álava con relación al Convenio Sociosanitario (Expediente: 8 /C/02/0002771)

2º) Pregunta formulada por Dña. Nerea Gálvez Lavín, Procuradora del Grupo Juntero Ezker Batua-Berdeak/Aralar, dirigida al Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, sobre la previsión en la evolución de las transferencias corrientes hasta el 2013 (Expediente 8 /C/03/0002683)

3º) Pregunta formulada por D. Aitor Bezares Vargas, Procurador del Grupo Juntero Mixto, dirigida a la Diputada Foral de Agricultura, en relación con la alternativa al trazado del corredor de la N-1

enpresari aurkeztu dion aukerari buruzkoa, N-1 errepidearen inguruko trazadura alegia (Espedientea 8 /C/03/0002775)

4.) Carmen Asiain Ayala andreak, Popular Biltzarkide Taldeko Prokuradoreak, aurkeztutako galdera, Arabako Diputatu Nagusiari zuzendua, Lakuako Egoitzan jarri nahi duen kudeaketa-ereduari buruz (Espedientea 8 /C/03/0002779)

5.) Aitor Bezares Vargas jaunak, Misto Biltzarkide Taldeko Prokuradoreak, aurkeztutako galdera, Arabako diputatu nagusiari zuzendua, Arabako Lurralde Historikoaren sarreretan dauden bide seinaleei buruzkoa (Espedientea 8 /C/03/0002801)

6.) Marta Alaña Alonso andreak, Popular Biltzarkide Taldeko Prokuradoreak, aurkeztutako galdera, Nekazaritza Saileko foru diputatuari zuzendua, Arabako Foru Aldundiak Ehizen Esparruen Elkartearekin dituen harremanei buruz (Espedientea 8 /C/03/0002780)

7.) Sofía Iturricha Yániz, Popular Biltzarkide Taldeko Prokuradoreak, aurkeztutako galdera, Ingurumen Saileko foru diputatuari zuzendua, Otsoa Kudeatzeko Planari buruzkoa (Espedientea 8 /C/03/0002781)

8.) María de la Encina Regalado de los Cobos andreak, Popular Biltzarkide Taldeko Prokuradoreak, aurkeztutako galdera, Ingurumen Saileko foru diputatuari zuzendua, Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko Planaren (2006-2016) burutzapenari buruzkoa (Espedientea 8 /C/03/0002782)

9.) Andoni Calurano Rico jaunak, Euskal Sozialista Biltzarkide Taldeko Prokuradoreak, aurkeztutako galdera, Ingurumen Saileko foru diputatuari zuzendua, Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko Planaren burutzapenari buruzkoa (Espedientea 8 /C/03/0002808)

10.) Ana Díaz de Zugazúa Salazar andreak, Popular Biltzarkide Taldeko Prokuradoreak, aurkeztutako galdera, Berrikuntza eta Sustapen Ekonomikoaren Saileko foru diputatuari zuzendua, Goibilera Gastronomikoaren aurrekontu-partidaren finantzazioak izan duen gehikuntzari buruzkoa (Espedientea: 8 /C/03/0002783)

11.) David Romero Campos jaunak, Euskal Sozialista Biltzarkide Taldeko Prokuradoreak, aurkeztutako galdera, Nekazaritza Saileko foru diputatuari zuzendua, jakiteko zergatik abeltzaintza-sektoreak ez duen parte hartzen probintzian antolatzen diren nekazaritza eta abeltzaintzako azoka eta erakusketetan (Espedientea 8 /C/03/0002809)

12.) Jon Iñaki Usategi Diaz de Otalora jaunak, Misto Taldeko Prokuradoreak, aurkeztutako galdera, Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuari zuzendua, Arabako Toki Erakundeen finantzaketarako Foru Funtsa arautzen duen 19/1997 Foru Arauari buruzkoa (Espedientea 8 /C/03/0002811)

Vitoria-Gasteiz, 2010eko apirilaren 27a.– Lehendakaria, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

presentada por la Diputación Foral de Álava a la empresa Red Eléctrica Española (Expediente 8 /C/03/0002775)

4º) Pregunta formulada por Dña. Carmen Asiain Ayala, Procuradora del Grupo Juntero Popular, dirigida al Diputado General de Álava, en relación con el modelo de gestión que se pretende para la Residencia de Lakua (Expediente 8 /C/03/0002779)

5º) Pregunta formulada por D. Aitor Bezares Vargas, Procurador del Grupo Mixto, dirigida al Diputado General, sobre el cambio de las señales viarias de las entradas al Territorio Histórico de Álava (Expediente: 8 /C/03/0002801)

6º) Pregunta formulada por Dña. Marta Alaña Alonso, Procuradora del Grupo Juntero Popular, dirigida a la Diputada Foral de Agricultura, sobre las relaciones que mantiene la Diputación Foral de Álava con la Asociación de Cotos de Caza de Álava (Expediente 8 /C/03/0002780)

7º) Pregunta formulada por Dña. Sofía Iturricha Yániz, Procuradora del Grupo Juntero Popular, dirigida al Diputado Foral de Medio Ambiente, sobre el Plan de Gestión del Lobo (Expediente 8 /C/03/0002781)

8º) Pregunta formulada por Dña. María de la Encina Regalado de los Cobos, Procuradora del Grupo Juntero Popular, dirigida al Diputado Foral de Medio Ambiente, sobre la ejecución del Plan de Gestión de Residuos Urbanos del Territorio Histórico de Álava (2006-2016) (Expediente 8 /C/03/0002782)

9º) Pregunta formulada por D. Andoni Calurano Rico, Procurador del Grupo Socialistas Vascos, dirigida al Diputado Foral de Medio Ambiente, sobre el cumplimiento del Plan de Gestión de Residuos Urbanos del Territorio Histórico de Álava (Expediente 8 /C/03/0002808)

10º) Pregunta formulada por Dña. Ana Díaz de Zugazúa Salazar, Procuradora del Grupo Juntero Popular, dirigida a la Diputada Foral de Innovación y Promoción Social, en relación con el incremento de financiación de la partida presupuestaria correspondiente a la Cumbre Gastronómica (Expediente 8 /C/03/0002783)

11º) Pregunta formulada por D. David Romero Campos, Procurador del Grupo Juntero Socialistas Vascos, dirigida a la Diputada Foral de Agricultura, en relación con la no participación del sector ganadero en ninguna de las ferias y exposiciones agroganaderas que se organizan en la provincia (Expediente 8 /C/03/0002809)

12º) Pregunta formulada por D. Jon Iñaki Usategi Diaz de Otalora, Procurador del Grupo Juntero Mixto, dirigida al Diputado Foral de Administración Local y Equilibrio Territorial, sobre la Norma Foral 19/1997 del Fondo Foral de Financiación de las Entidades Locales de Álava (Expediente 8 /C/03/0002811)

Vitoria-Gasteiz a, 27 de abril de 2010.– El Presidente, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**2819**

**Batzordean eztabaidatzeko mozioa, Arabako Foru Aldundiari A-625 errepideko Luiaondoko saihesbidea errepide seguruago bilakatzeko beharrezkoak diren neurriak har ditzan eskatzekoa.**

Aitori Bezares Vargas jaunak, Misto Biltzarkide Taldeko Bozeramaileak, Batzordean eztabaidatzeko mozioa aurkeztu du, Arabako Foru Aldundiari A-625 errepideko Luiaondoko saihesbidea errepide seguruago bilakatzeko beharrezkoak diren neurriak har ditzan eskatzekoa.

Eta hemen ematen da argitara Foru Aldundia kontrolatzeko, Osoko Bilkura bereziei buruzko ebazpen orokorraren hirugarren atalaren 2. puntuari dagozkion ondorioetarako

Vitoria-Gasteiz, 2010eko apirilaren 20a.– Lehendakaria, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

**2819**

**Moción para debate en comisión, por la que se insta a la Diputación Foral de Álava a que tome las medidas necesarias para hacer de la variante de Luyando de la A-625 una carretera más segura.**

Aitori Bezares Vargas Portavoz del Grupo Juntero Mixto, presenta moción para debate en comisión, por la que se insta a la Diputación Foral de Álava a que tome las medidas necesarias para hacer de la variante de Luyando de la A-625 una carretera más segura.

Lo que se publica a los efectos del apartado tercero, punto 2 de la Resolución de carácter general sobre Plenos Específicos para el control de la Diputación Foral.

Vitoria-Gasteiz, a 20 de abril de 2010.– El Presidente, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**2820**

**Arabako diputatu nagusiari Hitzarmen Soziosanitarioari buruz egindako interpelazioa.**

Juan Carlos Prieto San Vicente jaunak, Euskal Sozialistak Biltzarkide Taldeko Bozeramaileak interpelazioa aurkeztu du, Arabako diputatu nagusiari zuzendua, Hitzarmen Soziosanitarioari buruz.

Eta hemen ematen da argitara Foru Aldundia kontrolatzeko, Osoko Bilkura bereziei buruzko ebazpen orokorraren hirugarren atalaren 2. puntuari dagozkion ondorioetarako

Vitoria-Gasteiz, 2010eko apirilaren 20a.– Lehendakaria, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

**2820**

**Interpelación al Diputado General de Álava con relación al Convenio Sociosanitario.**

Juan Carlos Prieto San Vicente, portavoz del Grupo Juntero Socialistas Vascos, presenta interpelación al Diputado General de Álava con relación al Convenio Sociosanitario.

Lo que se publica a los efectos del apartado tercero, punto 2 de la Resolución de carácter general sobre Plenos Específicos para el control de la Diputación Foral.

Vitoria-Gasteiz, a 20 de abril de 2010.– El Presidente, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**2821**

**Batzordean eztabaidatzeko mozioa, Arabako Foru Aldundiari Laudioko kirol instalazioetan, eta bereziki San Martín Futbol zelaian, dituzten arazoei konponbideak bilatzeko eskatzeko dena.**

Alaitz Etxebarria Akaiturri andrea, Misto Biltzarkide Taldeko Bozeramaileak, Batzordean eztabaidatzeko mozioa aurkeztu du, Arabako Foru Aldundiari Laudioko kirol instalazioetan, eta bereziki San Martín Futbol zelaian, dituzten arazoei konponbideak bilatzeko eskatzeko dena.

Eta hemen ematen da argitara Foru Aldundia kontrolatzeko, Osoko Bilkura bereziei buruzko ebazpen orokorraren hirugarren atalaren 2. puntuari dagozkion ondorioetarako

Vitoria-Gasteiz, 2010eko apirilaren 20a.– Lehendakaria, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

**2821**

**Moción para debate en comisión, por la que se insta a la Diputación Foral de Álava a que busque soluciones a los problemas existentes en las instalaciones deportivas de Llodio, y concretamente en el campo de fútbol San Martín.**

Alaitz Etxebarria Akaiturri, Portavoz del Grupo Juntero Mixto, presenta moción para debate en comisión, por la que se insta a la Diputación Foral de Álava a que busque soluciones a los problemas existentes en las instalaciones deportivas de Llodio, y concretamente en el campo de fútbol San Martín.

Lo que se publica a los efectos del apartado tercero, punto 2 de la Resolución de carácter general sobre Plenos Específicos para el control de la Diputación Foral.

Vitoria-Gasteiz, a 20 de abril de 2010.– El Presidente, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**2822**

**Foru Arau proposamena, Kuadrillei buruzko azaroaren 20ko 63/86 Foru Araua aldatzeari buruz.**

Arabako Biltzar Nagusien Mahaiak egindako 132 bileran, 2010eko apirilaren 20a, 08/B/02/0002807 zenbakiko espedienteari dagokion aipatutako Foru Arau Proposamena kalifikatu du.

Argitara bedi Proposamenaren aurkezpena ALHAOean.

Bidal bedi Arabako Foru Aldundira, hamabost eguneko epean argi dezan zein den bere iritzia Proposamena aintzaz hartzeaz, Arabako Biltzar Nagusien Iharduera Arautegiko 114.2 artikuluari jarraituz.

Aurrean esandako epea bukatu eta gero, hala badagokio, sar bedi Osoko Bilkura bateko gai-zerrendan, aintzat hartzeko.

Arabako Biltzar Nagusien Iharduera Arautegiko 39.2 artikulua betetzearren, jakinaraz bekie biltzarkide taldeei, emandako kalifikazioa aldatzea eskatu nahi badute ere bost eguneko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko apirilaren 20a.– Lehendakaria, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

**2822**

**Proposición de Norma Foral, sobre la modificación de la Norma Foral 63/86, de 20 de noviembre, de Cuadrillas.**

La Mesa de estas Juntas Generales de Álava, en su sesión número 132, celebrada el 20 de abril de 2010, ha calificado la Proposición de Norma Foral señalada, correspondiente al expediente 08/B/02/0002807.

Publíquese la presentación de la Proposición en el BOTHA.

Trasládese a la Excma. Diputación Foral de Álava, a fin de que en el plazo de quince días manifieste su criterio respecto a la toma en consideración, de acuerdo con el artículo 114.2 del Reglamento de Funcionamiento de las Juntas Generales de Álava.

Una vez transcurrido el plazo a que hace mención el párrafo anterior, inclúyase, si procede, en el Orden del Día de un Pleno para su toma en consideración.

En aplicación del artículo 39.2 del Reglamento de Funcionamiento de las Juntas Generales de Álava, comuníquese a los Grupos Junteros por si desean solicitar la reconsideración de la calificación dada, en el plazo de cinco días.

Vitoria-Gasteiz, a 20 de abril de 2010.– El Presidente, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.